

Xedapen Orokorrak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

415

AGINDUA, 2010eko abenduaren 15ekoa, Justizia eta Herri Administraziooko sailburuarena, Arabako Toki Administraziooko Idazkari, Kontu-hartzaile eta Diruzainen Elkargo Ofizialaren estatutuen aldaketa onartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.22 artikuluan ezartzen denez, profesionalen elkargoen eta tituludun lanbideen alorreko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoari baino ez dagokio, Espainiako Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan agindutakoa hautsi gabe, betiere.

Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea eta profesionalen elkargo eta kontseiluei eta tituludun lanbideen erregistroaren araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretua aipatu eskumenaren indarrez eman ziren. Legeko 33. artikuluan eta dekretuko 38. artikuluan ezartzen denez, elkargoen estatutuak eta horien aldaketak Eusko Jaurlaritzako dagokion sailari jakinarazi beharko zaizkio. Gero, sail horrek, estatutuok legearen barruan daudela egiaztatu ondoren, behin betiko onartuko ditu, agindu baten bitartez. Azkenik, agindua, estatutuekin batera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta Tituludun Lanbideen Erregistroan inskribatuko.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Administraziooko Idazkari, Kontu-hartzaile eta Diruzainen Elkargo Ofizialaren estatutuak legearen arabera direla egiaztatuta, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.— Onarpena.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Administraziooko Idazkari, Kontu-hartzaile eta Diruzainen Elkargo Ofizialaren estatutuen aldaketa onartzea.

2. artikulua.— Argitalpena.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Administraziooko Idazkari, Kontu-hartzaile eta Diruzainen Elkargo Ofizialaren estatutuen aldaketa argitaratzeko agintzea (agindu honen eranskin moduan).

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

415

ORDEN de 15 de diciembre de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se aprueba la modificación de los estatutos del colegio oficial de secretarios, interventores y tesoreros de administración local del territorio histórico de Álava.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979 de 18 de diciembre, en el artículo 10.22, establece la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Colegios Profesionales y el ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio en lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución Española.

La Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales y el Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales, dictadas ambas en virtud de la citada competencia, establecen en sus artículos 33 y 38 respectivamente que los estatutos colegiales, así como su reforma, serán comunicados al Departamento competente para su aprobación definitiva, previa verificación de su legalidad, mediante Orden que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco conjuntamente con los estatutos e inscrita en el Registro de Profesiones Tituladas.

Verificada la adecuación a la legalidad de la modificación de los Estatutos del Colegio Oficial de Secretarios, Interventores y Tesoreros de Administración Local del Territorio Histórico de Álava, en virtud de las competencias que me otorga la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales

RESUELVO:

Artículo 1.— Aprobación.

Aprobar la modificación de los Estatutos del Colegio Oficial de Secretarios, Interventores y Tesoreros de Administración Local del Territorio Histórico de Álava.

Artículo 2.— Publicación.

Ordenar la publicación de la modificación de los Estatutos del Colegio Oficial de Secretarios, Interventores y Tesoreros de Administración Local del Territorio Histórico de Álava como anexo a la presente Orden.

3. artikulua.— Inskripzioa.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Administrazio-ko Idazkari, Kontu-hartzaile eta Diruzainen Elkargo Ofizialaren estatutuen aldaketa, Tituludun Lanbideen Erregistroan inskribatzea, erregistroa formalki osatzen den unean.

AZKEN XEDAPENA.— Eraginkortasuna.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 15a.

Justizia eta Herri Administrazioako sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

ERANSKINA

2. artikulua.— Egoitza.

Elkargoaren egoitza ofiziala Vitoria-Gasteizko udarrarian izango da, Gaztelako Atea kalea 9-1.a, A.

Alabaina, elkargoko organoek, Gobernu Batzordearen erabakiz, Arabako Lurralde Historikoko edozein udalerritan egin ahal izango dituzte bilerak.

Artículo 3.— Inscripción.

Ordenar la inscripción de la modificación de los Estatutos del Colegio Oficial de Secretarios, Interventores y Tesoreros de Administración Local del Territorio Histórico de Álava en el Registro de Profesiones Tituladas en el momento en que éste sea constituido formalmente.

DISPOSICIÓN FINAL.— Efectividad.

La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de diciembre de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.

ANEXO

Artículo 2.— Sede.

La sede oficial del Colegio radicará en el Municipio de Vitoria-Gasteiz, en el domicilio c/ Portal de Castilla, 9-1.º A.

No obstante, los órganos colegiales podrán celebrar reuniones en cualquiera de los Municipios del Territorio Histórico de Álava, por acuerdo de la Junta de Gobierno.